



ENEKO GORRI
EUSKARA TEKNIKARIA

Manifak

Lagan urriaren 26an, 51.000 lagun bildu ginen Iruñean Altsasukoen aldeko elkarretaratzean. Aitzineko larunbatean, 47.000 herritarrek Kataluniaren sustenguz Donostiako itsasbazterra zeharkatu zuten. Zenbait aste lehenago, 50.000 ginen Bilboko karriketan 47ak libre lelopean. Azaro bukaeran Parisen salatzen ziren euskara kontrako erasoak eta abendu hasieran Baionan gobernua- ren neurri antisozialak.

“Sartze” honek ere eman du karrikara ateratzeko arrazoi bat baino gehiago. Eta ohikoa bada ere militantziaren krisian atentzioa ezartzea, aitortu behar dugu herri horrek baduela oraindik astez aste milaka herritar mobilizatzeko gaitasuna. Bai, eta zer? Argazki eder batzuk aparte, zer ondorio? Ondorio politikoak badirenik ez dut ukatzen. Beste nonbait kokatu nahi nuke fokua ondoko lerroetan.

Gure artean: manifa baten ondotik nor ez da sekulan etxera sartu pixkat frustratua? Ez ote dute manifa batzuek gehiago gure artean sozializatzeko aukerarik, borrokarako momentutik baino? Batzuetan iruditzen zait milaka herritar biltzen ditugula/gaituztela atentzio sobera emanez mezuan (zein argazki aterako dugu? zein mezu igorriko dugu?) eta ez aski parte hartzaileengan sortuko ditugun emozioetan: A puntu batetik B puntu batera desfilatu,

aspalditik ikusi ez ditugunak agurtu, etxeratzean argazki bilduma sare sozial- etan partekatu eta ohera.

Adibide zozo bat hartzearen, beti harritu naiz, gure manifestan ia nehor ez baita heldu etxera apaindu eta imajinatutako pankarta batekin. Parisko mobilizazio sozialak, Kataluniako protestak, Libanoko karrika okupazioak eta Txileko manifen argazkiak begiratu eta gureekin konparatu. Kolorea, umorea eta mezu pertsonalizatuak eskas dira frankotan gurean. Anekdotikoa dirudi, baina adierazgarria zait: manifestara goaz, paseatzera joango ginatekeen bezala. Alta, bataila momentua balitz, prestatu- rik joan beharko genuke.

Antolatzaile gisa, guri dagokigu hori sustatzea. Guri dagokigu jendearen emozioetan ere eragiten duten manifik antolatzea, sare sozialak hobeki erabiltzea, gure gorputzak erabiltzea, publiko desberdinei tokia egitea... Bi alaba txiki ditut eta ez dute gehiago manifestara joan nahi. Kolektiboki ezin dugu ezer egin horren aldatzeko?

Datozen hilabeteetan imajinazioa landu dezagun beraz, izan gaitezen blokatzaileak, apaintzaileak, koloretsuak, biziak, pertsonalizatuak, iraunkorrak. Finean, emozio sortzaileak. Like eta klik gutxiago; adrenalina eta endorfina gehiago. Gora bihotzak! ●



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Familia

Lagun batekin elkartu eta umeen gainean itaundu barik, gurasoen galde- ra egiten badiozu, helduaroan zau- den seinale, gazte denbora joan zaizula esan gura du.

Familia denon ahotan. Gizartearen oinarri ez ezik, euskarri ere badelako, sistemaren funtsa. Zeren aitaturako gu- raso horiek gaixotuz gero, familiarte- koen gain geratuko dira zaintza ez ezik, medikuetako kontu guztiak ere.

Bikotekide edota seme-alaben pen- tzudan daude gaixo askoren tratamen- dua eroatea eta gainbegiratzea, baita joan-etorriak ere. Zelan egin liteke, lan ordutegian denean guztia? Hor konpon!

Familiakoa zara eta zure ardura da. Eta senideak, ezinean. Baina berdin dio sis- temari, zaintzak ez diolako inori ardura, ez duelako baliorik bizimodu honetan.

Sistemaren eredu tradizionala da, antzinakoa eta patriarkala, etxekoandre bat sendian lemazain zegoenekoa. Hala- korik gutxi orain, ordea.

Darabilgun martxarekin bateraezi- nak dira askotan zaintza eta lana. Zelan moldatu muntatuta dagoen hau guz- tiau? Zelan irauli eta gure bizimodura ekarri? Eta zahartzen garenean, nork hartuko du gure ardura, modelo honek segituz gero? Aldatu beharko da zeozer, ostantzean... ●